

**Goibeko kale**  
1997ko urria, 28zk.  
ELGETAKO ALDIZKARIA

F. IRIBAR  
SALBADOR 9-1<sup>a</sup> EZK.

**UDAZKENIAN  
PERRETXIKUTAN**

*Maderas Gallastegi, s.a.*

**MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA**

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.



## Suhiltzaileak

Kaixo lagunak:

Ia bi urte dira "Euskal Presoak Euskal Herrira" lema-  
pean aste beteko gose grebak  
egiten ari direla. Bertan mota  
guztietako taldeek parte har-  
tzen dute (kulturalak kirola-  
riak, langileak, etab.)

Aste beteko gose greba  
hauek hamabost bat pertsonak  
osaturiko taldeak burutzen  
dituzte. Egun horietan infor-  
mazio lan desberdinak egiten  
dituzte eta, batez ere, talde  
bakoitzaren ingurukoak senti-  
bilizatzean datza. Irailaren  
27tik urriaren 4ra 94. txanda,  
Giuzkoako Aldundiko Suhil-  
tzaileak errelebu hartu genuen.

Geure gain hartu dugu  
estatu osoko espetxeetan,  
beraien etxeetatik ehundaka  
kilometrotara kartzeleratuta  
aurkitzen diren ehundaka per-  
tsonen egoera estatuko suhil-  
tzaile guztiei helaraztea. Per-

tsona hauen egoera gogorki  
kondenatzen dugu kontuan  
harturik konstituzioak gertaera  
hau ilegaltzat jotzen duela.

- Presoen bateratearen  
alde
- Gaitz sendaezinak  
dituztenen kaleratzea
- Zigorren 3/4 beteta  
duten presoan askatasuna
- Agur bero bat, besar-  
kada batez.

Gipuzkoako Aldundiko  
Suhiltzaileak

## Ikasketak eta gizartea

Inoiz egin ez den inkesta soziolo-  
giko batek, gaur egungo gizartea azter-  
tzea izan du helburu. Azterketa hori egi-  
teko arlo zehatz batetan oinarritu da:  
ikasketak.

Egin ez den inkesta soziologiko  
horrek dioenez, ikasle gehienek ingenie-  
ritza, zuzenbidea edo zientzia ekonomi-  
koak ikastea aukeratzen dute. Beraien  
etorkizuna onena izango delakoan?

Egin ez den inkesta soziologiko  
horrek dioenez, eta ezagutzen ez diren  
arrazoiengatik, Deba Garaiko gurasoen  
%87ak ikasketak hauek egitera bultzatzen  
die. Guzti honen arrazoa hain modan  
dagoen hego haizea ote da?

Egin ez den inkesta soziologiko  
horrek aditzera eman duenez, kazetaritza,  
euskal filologia edo eta soziologia bezala-  
ko ikasketek ez omen dute aipaturiko  
beste ikasketak hoiak duten maila. Karrera  
hauek ikastearren besteak baino gutxiago  
izango al dira?

Egin ez den inkesta soziologiko  
horrek esan duenez, filosofia ikasi nahi  
duten gazteen %92ak ez daki zer egin.  
Ikasketak uztea da al daukaten irteera  
bakarra?

Egin ez den inkesta soziologiko  
horrek ez ditu ahazten ikasketarik ez  
duten edo eta ikasteko gogorik ez dauka-  
tenak. Lehenengoei ez die inongo etorki-  
zunik ikusten eta bigarreniei berriz, lehen-  
bailehen pentsamendu hori aldatzeko  
gomendatzen die. Ez al daukate lekurik  
gaur egungo gizartean?

Noiz egingo den galdera guzti  
hauek argituko dituen inkesta? Erantzuna  
iragarkien ostean.

Haritz Gallastegi

## ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan  
kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue.  
Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta  
NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero  
argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko  
balu, inzialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da  
komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa  
izatea. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita edo bota  
udaletxe azpiko buzoira.

AENOR

ER

Empresa  
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 61





## Meningitisaren txertoa, zertarako?

**G**aur egungo gizartean gauza asko egiten zaigu ulergaitz, baina meningitisaren txertoarekin gertatzen ari dena ez da batere normala. Duela hila-bete batzuk hasi ginen gaitz hau hartu duten gaixoen berri izaten, eta hasieran Estatu osoko agintariak txertoaren aurka agertu zitzaizkigun, ez zirelako ondorioak ondo ezagutzen eta bakunaren eraginaren iraupena ez zegoelako batere garbi. Garai hartan Osasun arduradunak jendea lasaitzen saiatu ziren, eta txerto beharrik ez zegoela adierazi ziguten.

Bestalde, Nazioarteko arautegiak dio 100.000 biztaletik 10 kasu baino gehiago dagoenean baino ez dela egin behar txertoaren aldeko kanpaina masiboa, eta kontuan hartu behar dugu Gipuzkoa-ko indizea 100.000 biztaletik 0,3an dagoela, Bizkaian 1,1etan eta Araban 4,2an.

Halaber, Frantziak, txertoaren fabrikatzailea izanda eta Estatu Espainiarreko meningitis kasu berdintsuak ezagututa, txertaketa masiboa alde batera utzi du. Nafarroan ere Gipuzkoaren antzerako tasa eduki arren ez da txertaketarik egingo.

Honez gain, kontuan hartu behar da oraingo txerto honek A eta C meningococoaren kontra babesten duela eta B izenekoa dela kaltegarria, eta gainera, 18 hilabete eta 20 urterarteko belaunaldia txertatzea 300 milioi pezeta kostatuko dela.

Hauek honela ez da ulertzen zergatik orain eta komunitate Autonomoan horren garrantzitsua den txertaketa: edo Osasun agintariak ez gaituzte aintzakotzat hartzen eta ez digute behar bezalako informazioa ematen, edo interes izkutuak daude kanpaina honen atzean.

Bego Izagirre



## Elkartea... Elkargune...

**I**zatez, "Elkarte" bat zer egin konkretu batzuetarako, zenbait pertsonen batuketa bat da. Elkarte horren iritxi nahia batzuetan bat izango da, eta beste batzuentzat

besteak.

Askorentzat helburu hori enpresa lanetan dago. Herri barruko zereginetarako ere, batzuek erabili izan ohi dira. Arrazoi honetatik dator, herriko Elkarteak (Soziedeak) eraikitzea.

Elkarte horien iritxi nahia, batetik bestera ezberdina da. Elkartearen hasieratik, gerora ere, egoerak nola edo hala aldatzen direlako, jokabideak ere aldatu egiten dira.

Herri batean bakoitza bere kontu ekintzak antolatzen badabil, "kaos bat" bihurtzen da. Elgeta antzeko biztanle gutxi dagoen lekuan batik-bat, ekintza askorekin bazterrak nahastu eta aurrerapenik ez.

Elgetan, koordinatzaile bat badaukagu, eta bere eskura jarriaz gero, nahaste hori bukatu da. Beste akats bat: nor berarentzat diru, fama, edo beste onura-garririk ez badago, lanean ez sartzea.

Oso gogoan dut, gaztetxo talde batekin, orain dela urte batzuek, egin nuen biltzar batean, herrira begira lan egitea eskatzen niela; erantzuna, "guk lanik ez dugu egingo" izan zen. Nere aldetik berriz, "horixe hartuko duzue" esanez amaitu genuen biltzarra.


Batzuentzat, jokaera "gastronomikoa" bakarra geratzen da; beste batzuentzat gehigarri batzuek erantsita.

Azken batean, jokabide batzuek ezberdinak dira, eta pozik hartzen ditugu, esate baterako, gazteak antolatzen dituzten ekintzak.

Bainan, hortikan deneri ekintzetan parte hartu arazteko ekimena ere....

Nire ustetan, gaurko egunez gastronomiara-ko, jokabidea bakarra ere, ezin genezake gaitzetsi. Aurrera beti, Agur !!!

Joakin Gastesi




Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea



## GOIBEKOKALE

**Argitaratzailea:** Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroskopia:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Bego Izagirre, Joakin Gastesi eta Alberto Telleria. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085) **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS 475/95. **ISSN:** 1135-3538.

*Goibekokale* ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitate oraineko eta iritziaren erantzukizunik



## AZKENEAN EUSKARA IKASTAROA ANTOLATU DA ELGETAN ZEGOEN ESKAERARI ERANTZUNEZ


Hile honetan euskara ikastaroa hasiko da. Azken urteetan ikastaro hau ez da egin arazo batzu izan direlako. Udaletxeak ikastaro honen aldeko apustua egin du 400.000 pezeta inguruko gastua izan arren. Diru hau AEKra jongo da eta berak antolatuko ditu klaseak urte guztian zehar. Ikastaroa liburutegian izango da arratsaldetan ordubiak eta laurak artean astelehenetik ostegunera. Ikastaroa 0 urratsetik hasiko da. Nahiz eta pertsona gehiagok izena eman alfabetatze eta Ega maila egiteko momentuz ez da posible izango. Hala ere udaletxean ari dira honi irtenbide bat bilatzen eta baliteke aurrera eraman ahal izatea.

Hilean zehar beste hainbat ikastaro berri ere egongo dira. Dantza ikastaro ezberdinak daude antolatuta nagusi eta gaztetxoentzako. Gaztetxoentzat Euskal dantzak antolatuta daude. Nagusientzat aldiz Saloi dantza eta Saltsa,

Merenge eta Jazza, ikastaro hauek 20 pertsonak izena emanaz gero hasiko dira martxan. Beste alde batetik Zeramika ikastaroa ere antolatu da.

Antolatutako ikastaro berriena Aerobicekoa dela esan daiteke. Ikastaro hau hilaren 3an emango zaio hasiera. Bi talde egin-

go dira: lehenengoak astelehen eta eguaztenetan ihardungo du eta bigarrenak aldiz martitzen eta eguenetan. Polikiroldegian izango da gaueko 20:45etatik 21:45etara. Izena Farmazian eman daiteke, matrikularen prezioa 3.000 pezeta-takoa da eta gero hilean 2.000 pezeta.



Hile honetan euskara ikastaroa hasiko da.

## EKINTZA UGARI HILABETE HONETAN

Azaro guztian zehar ekintza ezberdinak Udaletxeak, Guraso elkarteak eta Gaztetxeak antolatuta. Mota guztietako ekintza eta ikastaroak egongo dira. Adin guztietako elgetarrek izango dute ekintzez gozatzeko aukera. Guraso elkarteak eta andereinoek azaroak 3an astelehena Encarni Gemioaren Txontxongilo emanaldia antolatu dute.

Udaletxeak bestalde eskolako aurrentzat azaroak 13 betetzen dituenean Yolanda Arrieta Kontu

kontariaren emanaldia antolatu du goizeko 10etan. Hilaren 15a baino lehen Christmas eta ipuin lehiaketako lanak aurkeztu beharko dira eskolan.

Gaztetxeak ere ekintza ugari antolatu ditu. Gaur urriak 31 Enbor eta Asmo txarrak talde ondarrutarren kontzertua. Bihar azaroak 1 Egin Mus Txapelketa Gaztetxean jokatu da. Hilaren 8an Etsaiak eta Palasma talde lekeitiarrak. Azaroak 14ean Hitzaldia: Antimilitarismoa, MOC talde antimilitaristare-

kin. "Soldadutza profesionala ezartzean zer?" eta "inguruko Gaztetxeen ikuspuntuak" aztertuko dira. Hilaren 15ean zapatua bideo emanaldia: gaia intsumisioa. Hilabete guztian irudi eta artikulua ikusgai antimilitarismorekin lotuak.

Hilaren 21ean diapositiba emanaldia, gaia "Baso Tropikalak" gaueko 10etan.

Lo! eta Los Brusters taldearen kontzertua hilaren 28an izango da. Bukatzeko hilaren 29an Ping-Pong txapelketa arratsalde partean.

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

**IAPAM**

Soldadura homologatuak

Hoditeria Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA  
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

**Goio Sarasua**

Igeltzeritza lanak

Teilatua Sukaldeak  
Etxaurreak Komunak

Otzango Behokoa Baserria. Tel: 860156



## ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA JENDE NAGUSI ETA EZINDUEI

Etkez etxeko laguntza zerbitzua gizarte izaerako zerbitzua da, eta honen bidez ezindua izateagatik premiazko etxeko lanak edo norberarenak egiteko moldatu ezin diren familiei edo bakarrik bizi diren pertsonen laguntza pertsonalizatua eskaintzen zaie.

Laguntza emateko faktore erabakitzailea ez da bere dirusarrera maila, ez bere osasun egoera, ez eta bere bakardade egoera ere, baizik eta eguneroko bizitzan oinarritako eginbeharretarako duen ezintasuna.

### Helburuak

Etkez etxeko zerbitzua honek, besteak beste, baztertze, isolatze edo abandono arriskua eragozteko bilatzen du.

Menpekotasun maila bat izan ez arren, oraindik ezinbesteko gutxieneko bat duten edo eta zerbitzua osa dezaketen familiarteko edo lagun laguntza duten pertsonen etxeko giro nahiz inguruekiko etenaldia galeraztea edo atzeratzea da beste helburuetariko bat.

Hirugarren helburu bat familiaren eta ezinduaren arteko

elkartasun eginkizuna osatzea da, beharizan horri erantzunez.

Onuradunari bere kabuz egin ezin ditzakeen lanetan bakarrik lagunduko zaio, bere ahalmenak garatzeko eta suspertzeko ahalginez.

### Zein laguntza mota jasotzen da?

Zerbitzua honek laguntza anitz eskaintzen dio bezeroari. Hala nola, higie-ne eta laguntza pertsonala (ohetik jaikitze edo oheratzeko, jantzi eta erantzeko, otorduak, irteera laburrak egiteko aukera, laguntasuna...), etxeko lanak (garbiketa, norberaren arropa garbitu eta plantxatu, eguneroko beharrezko erosketak, ...), hezkuntza eta birgaikuntza lanak (ohiturak hobetzea, elikadura, higie-ne...) eta gainbegiratze eta kontrola deritzana (familiakorik ez duenean botikak eta elikadura kontrolatu, oinarritako gestioak...).

Lan hauek ezintasuna duenari bakarrik egiten zaizkio. Hau da, pertsona bati laguntza pertsonala ematen bazaio, etxeko besteei ez zaizkie lanak egingo.

### Eskaera prozedura

Eskaera Udaleko Gizarte Zerbitzuan aurkeztu behar da. Gizarte langileak kasua ikertzen du, jarraian, Gizarte Ongizate batzordeak hartu beharreko erabakia hartzeko. Kasu guztietan pertsonaren edo familiaren dirusarrerak kontutan izaten dira. Dirusarrerak hauen arabera erabakitzen da zenbat ordaindu behar duen familiak eta zenbat udalak.

Gehienez, egunean hiru orduko zerbitzua eskaintzen da. Ordu hauek egunez eta aste egunetan izan behar dira.

### Herri eskola, Eskola Txikien proiektuan sartu nahian

Elgetako herri eskolako gurasoen elkarteak, eskola txikiak duten arazoei aurre egin nahian, Eskola Txikien proiektuaren barruan sartu nahi du. Horretarako ezinbesteko baldintzak D eredu izatea, inguru rural baten bizitza eta irakasleen proiektu bateratu bat aurkeztea dira. Ikasle gutxi dituzten eskolek gero eta irakasle gutxiago dituzte eta ikasgai gehiago. Arazo horri aurre egiteko Tolosaldeko 16 eskola bildu ziren, beraien artean Elgeta eta Angiozar. Angiozaren, 5. mailarteko haurrak daude eta irakasle bakarra. Irakasleak aurkeztutako proiektuarekin, gurasoak inplikatu dira, era honetan, mugak gainditzerako bidean doaz. Antzeko arazoak sortzen dira era honetako eskoletan, honegatik Elgetako Guraso Elkarteak gai honetan sartu nahi ditu Elgetako Herri Eskolako Estamentu guztiak.



# ZABALA

Lasao 6 Elgeta  
Tel: 768075-6 768225  
Faxa: 768201



# HERMANOS S.A.

EHIZARAKO  
ESKOPETA EGILEA




## ABIADURA HAUNDIKO TRENA

Datorren abenduan argitaratzekoak diren "Estudio de Impacto Medio Ambiental" delakoa burutzeko lanean izan dira, bi astetan zehar, zulaketak egin eta ikerketa geoteknikoak egiten Madrilgo "Fomento" Ministeritzako teknikariak.

Ikerketa hau ezinbestekoa izango da behin betirako tren honek jarraituko duen bidea zehazterakoan. Alde batetik lurraren egokitasuna ikusi behar da, eta bestalde ingurugiroan eragin lezakeen kaltea. Bi ikerketa hauek eskuan dituztelarik Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailak publikoki irekiko du proiektuari alegazioak egiteko epea. Prozesu honetan edonork hartu ahal izango du parte.

Prozesu guzti hau aurrera doan bitartean Angiozar Bailerako Batzarrak egindako iradokizunek ez dute oraindik erantzunik eduki.



Abiadura Haundiko Trenak leku zabal eta hesiz itxia behar du pasabidetzat.

Eta horretaz gain, Deba Garaiko Mankomunitateak enkargaturiko proiektu alternatiboaren berririk ere ez dago. Isiltasunak dioena,

itxuraz, zera da: bertatik pasatuko dela azkenean eta aportazioak egiteko egin diren ahaleginei kasurik ez dietela egingo.

### AZKUNETAKO JAIAK

San Martinak inguatuz datoz eta Azkunetarrek azaroaren 11ren ingururako zaindariaren jaiak prestatzen dihardute.

San Martin eguna martitzenean tokatzen dela eta aurreko zapatuan ospatuko da, azaroaren 8an. Hamabietan meza izango da eta ondoren luntxa elizaurrean soinujoleekin. Erromeria giroak bazkalordurarte iraungo du, gero bakoitza bere mahaira inguratu beharok delarik ondorengoak

dastatzeko.

San Martinen eliza hau joan den urtean berriztu zuten auzotarrak, eta bertan San Martin Tourskoaren irudi gotikoaz gain San Roke eta San Sebastianen irudiak ere ikus daitezke. Irudi hauen azpian San Lucas eta San Mateo ebanjelirarien goierliebak daude.

Guzti hau ikusi eta jaiak gozatzeko aukera ezin hobea nahi duten guztientzat Azkunetara hurbilduz gero..

### MEDIKUAREN KONTSULTORIOA

Azkenik Medikuaren Kontsultorioa kokatzen den Herriko Etxeak dituen arazoak konpontzeko borondatea azaldu du Udalak. Beste alternatibarik ezean, onartu dute gutxieneko gastuak egitea mantentzen lanetan. Hori dala eta azpiko zoluko trabesaño ustelduak aldatuko dira eta etenak konpondu.

Horrekin batera gazteentzako zegoen lokala ere txukundu nahi da: komuna egin, leiho

berriak ipini, hormak konpondu,... baina lan hau auzolanean egin beharko da, guztion borondatezko lanarekin. Aspalditik gogoan dagoen eskakizuna ere, praktikan tearentzat leku bereiztua egitekoarena, egitekoan auzolanean egin beharko da, Udalak normaz kanpo utzi baitzuen plazan dagoen etxe hau eta, lehenago edo beranduago bota egin beharko baita, ordezkorearen jabe egiten denean.

Taberna Zaharra  
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar







Produkturik onenak,  
prezio onenean

Tel:  
76 80 98.

ALDI



# LEHIAKETA



Ez dare oso urrin ba... Kataia pasau eta segiduan topau leikez. Pagatza basarrixan aurrian dare honek bi gasontzixok, kantillan. Gasa eukitzeko honek bi ontzixok 230 metro kubikoko kabidia dake eta nahikua izango ei dira Elgeta osuan gasa eukitzeko. Asko izan dira semaforuan antza hartu dotsenak baiña zorionez bateronbatzuk igarri dabe eta afari ederra jateko aukeria izango dabe.

Hori aukerioi Xabier Irazabalek daka eta ez dot uste alperrik galduko dabenik. Guk jende gehixau gura giñuke saritzia baiña hurrengo baten izan biharko dau. Momentuan desenfokautako fotografixia zein dan igarri bihar birendako afarixa irabazteko.

Orainguan ba bikote mundial baten izena eskatzen dogu. Zeintzuk dira?

Kartatxo bat idatzi eta bialdu *Goibekokale* aldizkaria, Salvador kalea 2 Kultur etxea 20690 Elgeta.

Izena eta abizena: \_\_\_\_\_  
 Erantzuna: \_\_\_\_\_  
 Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_

## KOMIKIA





## Joaten zara perretxikuak batzera?

Udazkenaren etorreriakin pentsau dogu aproposa izango zala perretxikuen gañeko galdera bat egittia, esaten dabenez hauxe ei da sasoirik onena.



**Bihargiña (48 urte)**

Lehenau gutxi joaten nintzan, baiña oiñ afiziñua gehitu jata. Jakittunek esaten dabengan boladia dagola ta ilargixan arabera juaten naiz, ta gehixenetan asko batzen dittut. Piñatelia ta hartzen dittut. Leku asko dagoz onak perretxikuak batzeko baiña horrek jakitzeko ibili egin bihar da.



**Etxekoandria (37 urte)**

Ez naiz joan sekula perretxikutara, baiña esaten dabe sasoirik onena ointxe dala, udazkena. Lekuk onena batzeko pagopia dala esaten dabe. Nik ez dot sekula perretxikuik jan, baiña gaztetan piñatelia jaten zan.




**Jubilatua (71 urte)**

Gaztetan asko joaten giñan, goizian goiz urtenda, gero amak Eibarrera saltzera eruateko. Asko batzen giñuzen. Gainera trumoia ta eurixa egitten zebanian gehixau. Sasoirik onena uda hasieria da ta lekuik onenak Intxortapia, Iketzarreko etxeostia.



**Bihargiña (26 urte)**

Lehen joaten nintzan, baiña azkenengo urtietan ez naiz joan. Nik ez dot asko entenditzen, baiña lagunek esandakuan sasoi zala, orduantxe joaten nintzan. Hemen inguruan lekuik onena, Partaitti aldia dala esaten dabe. Perretxikuik gustokuena, piñatelia da.



**Jubilatua (81 urte)**

Lehenau asko joandakua naiz. Joaten giñanian geuretako lain batzen giñuzen. Danak ez nittuan desberdintzen, baiña ezagunenak bai: gibelurdinak, ziza horixak ta ziza zurixak gutxi. Lehenau leku onena Intxorta ingurua zan, Eguarbitza aldekuak diferentiak ziran. Lehen gustokuena gibelurdina zan, baiña oiñ ongua.



**Etxekoandria (37 urte)**

Joaten naiz, baiña askotan ez; gainera joaten naizenian asko ez dittut batzen. Perretxikutarako sasoirik onena ointxe da, ta joaten naizenian Villarrealera joaten naiz. Elgetan leku onenarikua Asentzio ingurua pentsatzen jata. Jateko gehixen gustatzen jatana ongua.



Jesús Marí Montiel  
**ITURGINTZA  
ETA BEROGAILUAK**

Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE  
ETA BAINUGELETAN**

Berezitasuna:  
Buztana.  
Pintxo gozoak  
otartekoak.

**BOLATOKI**  
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284



## Juan Luis Ormaetxea Bihargiña (39 urte)

♈	<b>Aries:</b> Ura baino klaruaua za... Noixian behin ardaux pixkat?
♉	<b>Taurus:</b> Beste ordu bete kantauko baziñuke... 2 asteko edurra egingo leuke.
♊	<b>Geminis:</b> Kontuz edurrakin!!!! Lehen be nahikua zurixa za ta...
♋	<b>Cancer:</b> Edurretan ipurdiko batzuk hartu, ipurdi hori mejoartzeko.
♌	<b>Leo:</b> Onenak zarie..., hankaz gora jausten.
♍	<b>Virgo:</b> Argi gabeko izotzakin bestela, ipurdiko katarrua hartuko dozue.
♎	<b>Libra:</b> Dozena bat torrada jatiak ez dozue kalteik egingo, animo.
♏	<b>Escorpio:</b> Platua beti utzik eta kazuelia? Bailla, janda gero.
♐	<b>Sagitaris:</b> Jarraitu disfrazakin, ia zehozer topatzen dozuen.
♑	<b>Capricornius:</b> Esku hotzak dakazuela? Zuek bai bihotza...
♒	<b>Acuaris:</b> Bizkorrak zariela? Gauza batzutarako seguru.
♓	<b>Piscis:</b> Manikura pixka bat egin, itxurarako be...

- Udaletxian ibili aurretik nun ibili ziñan? Eibarren, tornilleri-xa baten.

- Zenbat denbora udaletxian lanian? Bederatzi hilabete.

- Zein da udaletxeko lanik onena? Danak dira antzerakuak. - Ta txarrena? Salvador kaleko zuluak arreglatzia.

- Denbora librian zer egitten dozu? Poteau.

- Noiz joan zara azkenengo aldiz zinera? Aurreko zapatuan, "Volcano" ikustera.

- Zein da Elgetako lekurik onena? Asentzio. - Denbora asko pasatzen dozu bertan? Gutxi.

- Gustauko jatzun karta erromantiko bat jasotzia? Ez. - Ta zeuk bialtzia? Bai, baiña lehenau jaso ezkeru.

- Konfesau zeinke bizioren bat? Ardaux ta andrak.

- Erretzen dozu? Bai, asko.

Zenbat eguneko? Pakete t'erdita farias bat.

- Zenbat denbora egitten dozu Salvador kalia garbitzen?

- Amai laguntzen dotzazu etxeko lanetan? Bai, nere plautua garbittu ta...

- Labadoria martxan jartzen badakizu? Bai.

- Ardaux baltza ala gorrixa? Baltza. - Zein marka da onena? 81eko Muga.

- Egin dozun azkenengo biagia? Donostiara. - Zeinekin? Lagun batekin...Ja ja ja.

- Bizitziari zer eskatzen dotzazu? Lana ta sasioa.

- Zeiñi emongo zontzake musu haundi bat? Amai.

- Hemendik urte batzutara zeure burua ezkondata ikusten dozu? Momentuz ez. - Ta seme alabekin? Hori igual bai.

- Definidu honek berbok: Elgetako jaixak, andrak, tabernia, eskobia.



Ordubete edo.

**IBAIBA-RRIAGA**  
GARRAIOAK

Tel: 768072  
Salvador zeharbidea 2  
ELGETA

**M<sup>A</sup> Karmen Lenzeria**

Lentzeria eta kosmetika gaiak

Salvador zeharbidea.  
Tel: 789040

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, sailheskia erreta.

**TABERNA**

BARRIO DE ROKIA  
TABERNA

tel: 768273



## MAXIMO ARANTZABAL:" NERE AITTAN ESANETATIK ETA EGOTXIAKO AITAREN ESANETATIK JASO NITTUAN ORAIN EZAGUTZEN DITTUTEN SUSA LEKUEN BARRI"

Maximo Arantzabalek argi du, perretxikurik onenak non aurkitu daitezkeen esaterakoan. Bera izango da Elgetan dauden perretxiko biltzaile trebeenetakoa eta aitak erakutsi zionetik urtaro bakoitzean dagokion perretxiku eta ondoak biltzen ditu.

"9-10 urtekin hasi nintzan aittakin perretxikuak batzen". Maximok aitarekin ikasitakoa ez du ahaztu eta libururik ere ez du behar, ezagutzen dituen perretxikuak jaten baititu bakarrik. "Dudarik barik perretxiku onenak Euskal Herrikuak dira eta Gipuzkoa eta Bizkaikoak hobiak ondio" dio Maximok. "Hezetasunagaitik izan

leike asko desberdintzen da eta Araba eta Naparruako perretxikua gure ingurukuetatik".

Garai bakoitzean dagokiona bildu eta etxekoekin jatea baino hoberik ez dago, "andriak, Mirenek ipintzen dittu eta gainontzequok jan, askotan erregalau egiten dittugu, azkenerrako kantsau egiten gara ta". Sasoi bakoitzak berea ematen du, "iraillian esaterako lanpernak batzen dittut eta udazkenian robilloiak eta onguak, udaberri hasieran apirillian, ongo eta haitz perretxikuak, gero txuau susak".

Perretxiku prezia-turik badago euskaldunontzat susak dira. Kanpoko probintzietan ere perretxiku horren bila aritzen garelako ezagutzen gaituzte. Oso garesti ordaintzen dira susak merkatuetan, "aurten 16.000peseta be pagau dabe kilua, dana dala nik ez dittut saltzen etxian gustora jaten dittugu ta lagunen artian be banatzen dittugu". Banatu eta jan gauza bat da eta susa lekuen berri ematea beste bat "susa lekuak ez dittut esaten, horrek sagrauak dira" Maximorentzako eta baita gainontzeko zale guztientzako ere. Gainera gure belarrietara iritxi den berri



Perretxikua labanarekin moztu behar da eta etxera eramane aurretik garbitu.



Zimitzeko otarra, makila eta laban bat, hori da aterkiarekin batera Maximok eramaten dituen laguntzaileak.

baten arabera, bat baino gehiago saiatu omen da bere atzetik joaten baina ez du lortu ezer. "Susa lekuak semiak aittarengandik jasotzen dittu, gainera Egotxiara ezkondu nintzanean hango aittak berriak esan zoztazen, Orain nere semiakin juaten naizenez, harek be ezagutzen dittu". Jendeak diru asko lortzen du sasoi batzutan baina susa kiloa batzeko asko ibili behar da, hala ere zortea izan du berak aurten "Burgosera juan giñan

**OSTATU**  
**ELGETA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.  
Karta.

Bandoni Bolinaga  
METALAK  
FS7 18

Tel - Fax 76 80 64  
ELGETA



baten 4 kilo inguru batu nittuan”.

## Perretxiku biltzailearen esku liburua

Semea alboan duela edo batzutan ilobarekin ere mendian behetik gora ekiten diote bilatzeari “perretxikuak batzeko makilla, bista ona eta zimitzezko zestua dira egokixenak, kutxillua ahaztu barik”. Behetik gora ekiten zaio perretxiku edo onddoaren buztana ikusteko, goitik bera begiratzuz gero, txapela ostoen artean ez baita ondo ikusten; makilarekin kurioso belar eta ostoa artean begiratzuz da eta aurkitu ondoren labanarekin zurtoina moztu eta garbitu. Mirenek, Maximoren emazteak esan zigunaren arabera, “oso garbi ekartzen ditu aittak perretxikuak, lurrik barik, nik horrek preparaubaino ez ditut egitten”. Perretxikua plastikozko poltsa baten sartuz gero, egosi egiten da eta desfiguratu, beraz mendian gora eta behera zabiltzala, behar bezalako zesto bat erabiltzea komeni da eta Maximok zimitzezkoa gomen-datu digu.

Ogia eta ardoarekin jatea oso gustoko ditu, frijituduta edo tortilan. Horra iristerako, eguna zabaldu orduko atera behar da, “goixeko seirak eta seirak eta erdiak ingururako”. Urtero ez da kantitate bera egoten “txarrena, hego haizia da, dana sikatzen dau eta egokixena hezetasuna dagonekua da”.

Lehen esan dugun bezala, sasoian-sasoikoa eta orain ikasiko



Pagadiak ditu atseginen Maximok perretxikuak bilatzeko inguruan pinadi asko badago ere.

dugun moduan tokian-tokikoa. Argi dago zuhaitz azpi edo baso inguru guztietan ez dagoela altxorrik, baina perretxiku eta onddoek bizitzeko nahiago izaten dituzte paraje batzuk. Maximoren ustez “toki onena beti da pagarixa, bertako bedarra fiña eta motza dalako”, eta faltan botatzen dira bere ustez

ra daukagu sasoi honetan.

## Txarrak bereizten

Maximo edo bere koadrila-ko zein etxeok ez dira sekula pozoindu, baina egon da Elgeta inguruan susto bat baino gehiago. “Kertenera begiratzuz dotzat nik beti. Esaterako bada- go perretxiku bat teilla perretxikua deitzen dana. Bi eratakuak dare gaiñetik bixak dira gorrixkak, baina kertena batena gorrixa da eta bestiana zurixa; gorrixa dakana ez da ona eta bestia bai”.

Dena den berak aitar-ekin biltzen zituenak bakarrik jaten ditu eta ez da arriskatzen. “Badakitt jateko modukuak asko dirala baiña perretxiku danak onak dirala eta ez dago zertan batu bihar, gustoko diranak batzia nahikua izaten da” Maximorentzako. Azken aholku honekin guk ere otarra hartu eta makila eskuan dugula bagoaz.

**Maximo: “Susak batzeko sasoi- konpetiziñua izango balitza moduan ibil-tzen da jentia. Mendixan gora eta behera karrera izango balitza moduan. Gaiñera topautako dana batzen da.**

pagari gehiago; Nafarroa aldean gehiago daude eta hemengo asko eta asko hara joaten dira bila. Pagadietan beraz denetatik dago, berak biltzen dituenen artean, haitz perretxikua, urdinak, txaltxia eta onddo klase batzuk. Dena den ez arduratu, zeren pinadiz josita badaude ere gure inguruak, robi-loiak eta onddoak aurkitzeko auke-

**IRAMA**  
Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua  
mensatel: 900282828  
abonatua: 247262  
tel: 789057-768025

**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

**KONTXI**  
**ARRANDEGIA**  
Salbador 5 Tel: 768009



# Elgetan zer falta da hamar eta hamabost urte bitartekoentzako?

Hola,

Gu DBHko lehenengo mailan gaude. Lerro hauetan idatziko duguna, Elgetan gure adinekoentzako gutxi gora-behera falta dena da. Badaude zenbait gauza eta puntuz puntu landu ditugu.

**Autobusak:** Guretzat Elgetatik alboko herrietara autobusak ipintzea ondo egongo litzateke. Horrela, Bergara, Arrasatera, Eloorrora, Eibarrera... joan ahal izango ginateke nahi izanez gero behintzat. Gainera, gurasuak molestatu gabe joango ginateke. Bueno, baina autobusak ez ziren oso garestiak izan beharko!!!!

**Lekuak:** Guk uste dugu Elgetan bi leku gehiago behar ditugula 10 urte eta 15 urte bitartekoentzat. Bi gauza horiek hauexek dira: Bata, euria egiten duenerako leku bat aterpea duena; bestea patinetan ibiltzeko leku aproposen bat.

Euria egiten duenerako lokalak barruan gauza diferente batzuk eduki beharko litzuzke: zine bat, jolas leku bat, berbetan egoteko leku bat aulki, mahai... batzuekin.



Dibertitzen jakitzea da inportanteena.

Patinetan ibiltzeko lekuari dagokionez harribarikoa izan beharko luke, leku batzuetan laua eta bestetan aldapa batzuekin izan beharko litzateke. Hori bai, min hartutako pertsonentzako medikuren bat egon beharko litzateke!!!

**Jaiak:** Jaietan ez zen gaizki egongo barraka batzuk ekartzea (txikientzako bakarrik ez) eta arratsaldean jokuak, buruhandiak (gehigotan) egotia...

Bueno, hau guztia baino inportanteagoa da dibertitzen jakitea!!! Idatzi dugunak hori egiten (dibertitzen) laguntzen digu behintzat.

**ONDO PASAU JAIXAK!!!!**  
Laster tenporadia akabatzen da eta. Baina dibertitzeko ez dago zertan edan edo erre beharrik!!!!

DBH-ko 1.maila.

*Gure adinekoentzako gauza dexente falta da: Autobus gehiago, euria egiten duenerako aterpea, patinetan ibiltzeko lekua, zine bat, berbetan egoteko lekua, jaietan barrakak egotea, jokuak...*

Tel: 76 81 31  
M<sup>a</sup> Jesus  
Arrazola

**VIVO**  
Janari  
denda

**E**  
**HARATEGIA**  
**A**  
**S**  
**T**

San Roke 6  
tel: 768168.

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

**Paxi Taberna**



## ARRAIN ZOPA

Sukaldariak: Rosa M<sup>a</sup> Boehm eta Elena Zabala.  
(Elgeta Hotela)



### NOLA PRESTATU:



Kazuela batetan barazkiak ( edozein motatakoak izan daitezke) egosten ipini. Arraina eta itsaskiak gehitu.

Zartain batean olioak berotu kipula frijitzeko; hau, basokada bat ardo zurirekin gehitu.

Ondoren, barazkiak eta salda purea egiteko ontzitik pasatu. Mehe-mehea dagoe-nean, arraina zati txikitik gehitu. Ogi zati batzuk zartainean frijitu eta dena egosi.

### OSAGAIAK


- Barazkiak: kipula, porruak, perrexila, azenarioa....
- Arraina
- Itsaskiak
- Ogi
- Olio
- Gatza
- Ardo txuria



**GOMENDIOA:** - Arrain eta barazki freskoak beti egokiagoak izaten dira.  
- Koloreak bizitasun gehiago izan dezan, tomatea erabiltzea gomendagarria da.

## HAIZEA

## TABERNA



giro atsegina  
lagunartean  
egoteko.  
Tel: 768256

## ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste  
dimensio batetara!

Tel: 768078



## PILOTA JOKOAREN HISTORIA II: AINTZINAKO HERRIETATIK ERRENAZIMENDURA

Aurreko atalean pilotaren lehen aztarnak zein garaitakoak ziren aztertu genituen, nola, historiaurrean bazela tenisarekin antz handia zuen joko bat Euskal Herriko artzaiek jokatzen zuten. Oraingo honetan aintzinako herriek, hala nola, Greziarrek, Erromatarrek, eta Egipziarrek zein joko mota eta zelako tresnak erabiltzen zituzten aztertuko ditugu, Errenazimendura iritsi arte.

### Aintzinako herriak:

Aintzinako herrietan kirol-zaleena *Egipto* dugu. Asko ziren praktikatzen ziren kirolak eta horien artean pilota aurkitzen da. Besteak beste, garaiko politikoeke ere jokatzen zuten denbora zeukaten.

*Grezian*, lur sail zabaletan eta ibai inguruetan jokatzen zuten. Emakumeak ziren kirol gehien egiten zutenak, hori diote behintzat hilobietan aurkitu diren margoek. Pilota gaur egun hain famatuak diren Joko Olinpikoen barne sartzen zen galdetuko diezute askok eta askok zuen buruei, ezta? Ba erantzuna ezezkoa da. Aurkitu diren irudien arabera, jolas horiek ez zuten erlaziorik egun ezagutzen ditugun jokamoldeekin, denbora pasa zirela esan genezake nolabait, dantzarekin lotuak.

Gutziz alderantzizkoa da *Erromatarren* kasua. Hauek praktikaturiko jokorik herritarrena izan zen pilota. Edozein tokitan joka-



Erromatarren garaiko "Harpastum" izeneko jokoak Rugbyaren aurreko jokoak dela esaten da.

tzen zen: kalean, plazan, bidetartetan eta "Marteren zelaia" deituriko toki berezi batean ere bai.

Joko moetak guztiz ezberdinak ziren. Lau pilota joko ezberdin ziren gehien jokatzen zirenak. Bata "Paganika" izenez ezagutzen zen, sagar baten antzeko tamainako pilotaz jokaturikoa. Batzuen ustez xare antzerako batez jokatzen zen horma baten aurka.

"Harpasum" izeneko jokoan gizonezkoak aritzen ziren. Esku eta oinez jokatzen zen, botea lurrean egin zitekeelarik. Esan ohi da futbolaren eta rugbyaren aurreko jokoak dela.

"Trigonika" pilota txiki eta gogorrez jokatzen zen. Pilota jaso-tzen zuenak, bidaltzen zionari

itzultzen zion edo hirugarrenari igortzen zion. Pilota ezberdinekin jokatzen zela uste da. Ikusleen partaidetza ere azpimarragarria da joko honetan.

Erromatarren garaian asko jokatzen zen beste pilota joko bat "Follis" izenekoa zen. Haizez beteriko pilotoi batekin jokatzen zen, gutxi gora-behera gaur egungo baloi baten antzerakoa. Jokoaren gakoa pilotak lurra ikutu aurretik jotzean zegoen. Joko honetara haurrek eta zaharrek jokatzen zuten gehienbat.

### Erdiaroa:


Behin aro historikoan sartu ondoren ere, ez da lan erraza pilo-

# LENIZ

## AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186  
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604  
ARRASATE



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

## TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzapazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK



taren garapena zein bidetatik doan aztertzea. Informazio urria dago sasoi honetakoa. Kirol historiagileak ez ziren interesatzen ekintza arruntetan, ohiko bizimoduan, handikerietan, aparteko notizietan baizik.

Pilota jokoari buruzko Erdi Aroko lehen berria 583. urtekoa dugu, non Vitoriakon, pilotan jokatzen zutela, eta nola joko hau Iparraldeko preso hartutako baskoiek irakatsi ziretela.

"La Soule" edo "Choule joko", plebeioek jokatua, herritarrena zen Normandian eta Bretainian.

"Seu de Paume" edo "Eskuzabal Jokoaren" aztarnak ere badira. Noble, apaiz, eta apezpikuek jokatzen zuten joko zen. Modalitate hau lur sail zabaletan eta leku ertsietan ere jokatzen zen.

XII. eta XIV. mendeen arte-

## Errenazimenduan pilotalekuak elizak baino ugariagoak omen ziren.

an, pilota, monastegietatik hiri eta gazteluetara pasa zen, frantzian noble eta erregeen jokorik gogokoa ena bihurtuz.

Erdi Aroa, joko tokia bitan banatzen hasi zen unea dela esan dezakegu, marra, soka, edo sare batek bereizten zituelarik. "Luzeraren" etorrera gero eta nabarmenagoa dirudi.

Modalitateari dagokionez, eskuz jokatzen zuten gehienbat eta batzuk eskularru antzeko bat erabiltzen zuten. Lehen emakume pilotariaren sorrera XV. mende honetan kokatzen da. Erdi Aro horren bukaeran, erregeek erakutsitako afizioaz oso ezaguna egin zen pilota Frantzian.

Laburpen gisa, esan, aro horretan bi joko moeta praktikatzen zirela. Batetik "Courte paume": leku itxietan. eskuz, tenisean bezala sare bat erdian kokaturik, gaur egungo Pasa-

karen antzera. Bestetik, "longue paume" espazio libreetan. Suposatzen denez. azken hau, herrian sustartua.

### Errenazimendua:


"Jeu de paume", eskuzko joko, pil-pilean dago Frantzian. Pilotalekuak elizak baino ugariagoak omen ziren: frontoiak non nahi, Orleansen, Bordelen,... Parisen bakarrik 150.

XVI. eta XVIII. mendeetan aro glaziar bat ematen da europan, ondorioz, baliteke jendeak, dirudunak, leku itxiak, hots trinketeak aukeratzea.

Baliteke ere joko horrek gure Euskal Pilota jokoan eragin bizia izatea. Euskaldunek, betidanik izan dute kanpotik sartu daitezkeen aldaketen aurrean beren ohitura eta izamoldeei eusteko horrelako etsipen tinko bat. Hala ere, tradizioaren aldeko izaera hau bikoitza da, alde batetik arbasoek utzitakoa mantentzen saiatzen dena, baina era berean behin kanpoko edozein motatako berrikuntza onartuta gogor eusten dio horri, bere jatorria bertakoa bailitza.

Hasiera batean, "eskuzabal joko" delakoa eskuz jokatzen zen, baina XVI. menderako galdua zegoen ohitura hori, jokalariai pala edo raketa antzeko bat erabiltzen azaltzen baitira aurkitutako aztarretan.

Era berean Euskal Herrian eskuz jokatzen jarraitu zen, joko "berria" beraien artzai pilotari moldatuz. Bertako tradizioan, herriko muinean kokatzen da pilota.



Erdi Aroan eta Errenazimenduan pilotalekuak asko ugaritu ziren.

*Erdi aroan noble, apaiz eta apezpikuek jokatzen zuten pilotan. Erregeak ere zaletasun handia zuten.*

**BILTEGI  
DENDA**  
Zugandik gertu behar dugun beste  
Salbador 24 Tel: 768206

**GRONDO**  
elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.  
Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.



## GOIMENDI

### Ermita: San Migel Monte

**Jaia:** Maiatzak 8an

Normalean San Migel egunetik hurren gelditzen den zapatu arratsalde eta gauean ospatzen da jaia: Meza elizan, luntxa elizaurrean eta gero iluntze aldera auzotarren (bertan eta kanpoan bizi direnen) afaria Kanpazarren.

Nahiz eta azken urteotan galdu xamarra egon, San Iñazio egunak ere indar handia eduki zuen. Jai hau Kanpazarren ospatzen da, eta beste lekuetan bezala muga egiten duten lurretako edo artzai uneetako jaia da (Urbian, Gorbeian,...)

#### Baserriak eta etxeak:

- Zelaitxueta (Zelaitxo)
- Lasarte
- Zulueta Gainekua (Zulota)
- Zulueta Azpikua (Zulota)
- Pagadigorria (Paiorri) hormak.

#### - Gongeta, bi bizitza:

- Lazpiur familia (erorita)
- Arbulu familia (hutsik)
- Gontzarri Gainekua
- Gontzarri Azpikua
- Ametz Azpi
- Lope Barri

#### - Lopealdeoste (Lopaldoste, Lope), bi bizitza:

- Ugarte familia
- Loiti familia
- Altuna (Altune) hutsik

### San Migel Monte

Goimendi auzoaren erdigune egiten duen tontor gainean San Migel eliza daukagu. Bere izena, "San Migel Monte" hori, Italiako Bergamo hiriko mendixka baten San Migel agertu zela eta datorkio. Duen abside borobilak erromaniko kutxua ematen badio ere XIX. mendean jasotako eliza da.

Aurrez, Kanpazarren zegoen San Migeli jasotako eliza hau, frantsesen kontra egindako "Guerra de la Convencion" (1894an) deitutakoan zeharo txikituta geratu zen arte Bizkaiko tropen aginduz etsaiaren babesleku ez zedin izan. Kanpandorrerik ez eta kanpaia

pago adar batetik zintzilik zeukan. Bere kokaleku zehatza ez dago bat ere argi non zegoen, beharbada oraindik ere "dantzalekua" deituriko lekuan egongo zen. Eliza barik egon ziren denboran harria egin zuen urtero soloetan kalte ugari sortuz, eta berriz eliza jasotzeko laguntza eskaera luzatu zioten auzotarrek Angiozar Bailarari, bakarrik ezin zutela eta. Horrela, 1819an, Angel Otxoa de Angiozar aparejadoreak egindako planoen arabera jaso zuen Elgetako Joakin Elkoro harginak.

Elizpea 1863an egin zen auzoak eta parrokiak ordainduta. Horrekin batera egin zen kanpaientzat espadaña, hau Juan Pedro

Laspiur, Altuna baserrikoak, ordaindu zuelarik.

Berezko San Migelen irudi barrokoa gerra denboran desagertu zen, soldaduek sua egiteko erabili baitzuten. Orain Goimendiko ermitan dagoen irudia gerra ostean ipinitakoa da.

Goimendi Angiozarko kalearekin elkartzen duen Elizbidea ere bitxia da: mendi hegalean zehar, Gontzarri gainetik hasi eta Pagomendi zeharkatuz Bolu pare-raino oraindik ere irauten dute harmailak. Bere kilometro eta laurdeneko luzerarekin gizonak egindako eraikuntzarik luzeena da Bailara osoan.

### Zelaitxueta (Zelaitxo)

Angiozarko jende askorentzat baserri etxerik ezezagunena da Zelaitxo, ezkutuan gelditzeaz gain urte askotan hutsik egon baita, ardi txabola bihurtuta.

Bi bizitzako baserria izan zen Zelaitxo mende honen hasiera arte. 1867. urtean Agustin de Zezega bizitza batean eta Manuel Berecibar bestean bizi ziran bere familiekin. Geroago Gallastegi-Lamarain familia bizi izan zen bertan, 1912an Gontzarri-azpikora bizitzera joan ziren arte.

1915ean, hiru urte hutsik zeramala, Severiano Etxeberria, Montzon baserrikoak, erosi zituen etxea eta bere 4 Ha.k 7.000 pezeta-



Zelaitxueta berria eta atzean Kanpazar gaina.



gatik.

Gaur egun ikus dezakegun Zelaitxueta etxe berria aurreko etxetik 20 metrotara, etxaburuan, dago eraikia. Ez du ez itxuraz ez eta orientazioan jatorrizko etxearekin antzik, lehengoa baserri etxe gehienak lez ekialdera begira baitzegoen eta oraingoa aldiz hegoaldera, baina aurrekoaren hainbat osagarri erabili dituzte berria egiterakoan, arku esate baterako. Etxe zaharraren horma batzuk eta labea gelditzen dira zutik.

1995a geroztik Juan Luis Etxeberria eta familia bizi dira bertan. Eraikuntza berria zela eta etxe zaharretik aprobetxatutako osagaiez berba egiterakoan sarrerako arku dotorea aipatu diogu eta zera argitu digu: "oraingoak bi tramo gehiago ditu, horrela ataria zabalgogo eginez. Lehen arku "gipuzkoarra" zeukan etxe zaharrak eta orain arku "bizkaitarra" etxe berriak".

Paraje benetan zoragarria da Zelaitxo, Udalaitez aurrez-aurre duelarik Bizkaia eta Gipuzkoaren muga "mugikorrean". Mugarri "interprobintziala" kaminoko lanak zirela eta mugitu beharra izan zuten eta Eusko Jaurlaritzak berak parte hartu behar izan baitu berriz non ipini behar den argitzeko...

### Lope (Lopaldoste)

"Lope" laburduraz ezagutzen dugun etxearen izena Lopealdeoste da jatorriz. Hala agertzen da behintzat agirietan. Etxe honetatik Angiozarko kalera joateko Lopegaina pasa behar da eta badu lojkarik izenak, kaletik begiratuta behintzat.

Lopaldoste hasieratik bi bizitzako etxea izan da eta horrela jarraitzen du izaten gaur egun ere. Alde baten Loiti familia bizi da eta beste aldean Ugarte familia. Bi familia hauek mendeetan zehar iraun dute etxe honi lotuta nahiz eta etxearen ugazaba izatera orain dela ehun urte heldu ziren.

Loititarren aldetik joan zen mendeko Lehen Karlistada gerratean, "Compañía de Tiradores del Primer Batallón de Guipúzcoa"-n



Lopaldoste baserria.

boluntario bezala parte hartu zuen Martin Loitiri, Aloñamendiko burrukaldian (1837/03/16) eduki zuen parte hartze erabakikorragatik Carlos erregek "Cruz de Distinción" delako kondekorazioa ezarri zion Azkoitian 1838ko otsailaren 15ean. Honen agiria etxean gordezen dute gaur egun ere.

Martin Loiti ez zen izan etxe honetatik bakarra gerrate horretan nabarmentzen. Bere etxe-konekoa zen Vicente Ugarte teniente izatera iritsi zen, eta Bergarako Besarkadaren ondoren "Convenio" famosoa sinatu zutenean Maroto eta Esparterok 1839an, Vicentek ez zuen onartu, hura traizioa zela esanez eta Iparraldera ihes egin zuen bere gizonekin.

Ugartetarren aldetik "Padre Ugarte" izenarekin ezaguna izan zen frantzizkotarra oso famatua izan zen. "Orden Terciaria Franciscana" delakoa ezartzen eragin handia eduki zuen eta oraindik ere adineko gizon-emakumeek gogoan dituzte Angiozarren haren sermoietako pasarteak, Aste Santu aurrettxoan mixioak ematera etortzen zenean, irudi hurbilak eta ezagunak erabiltzen baitzituen. Adibidez kalumnia eta surrumuruak zabaltearen ondorio larriak azaltzeko honela zihoen sermoi baten: "...hori, hego haize indartsuak Lope gainien jotzen dabenien oilo lumak aidera botatzia moduen da, ia zeinek batzen ditxuen gero harek!!..."

Mende honen hasieran

Ugartetarren zazpi anaik hartu zuten Ameriketarako bidea. Californiako Stockton hirira joan ziren, orduan aurkitu berri zen urreak erakarrita edo, handik zabaldu zirelarik gero beste hiri batzuetara. Gaur egun ere Stocktonen zein Californiako beste herri batzuetan ugari dira Ugartetarrak, eta Lopen ere pasiloan zintzilik daude Far-West edo "Oeste"tik bidalitako anaion ezkonberritako argazkiak.

Etxeak jasan duen itxuraldaketa handiena 1948an izan zen, etxearen kantoi baten beste pisu bat jaso zenean. Horrela dio nahi duenak irakurtzeko etxeko horman ezarritako idatziak: Esta casa fue construida por Esteban Ugarte 1948"

Duela hamabost urte Lope-Barri etxea eraiki zuen Pello Ugartek, Lope eta Altune bitarteko gainean. Leku eguzkitsuagoan baina haizetsuagoan ere bai seguruenik, ze, izan ere Lopaldoste etxeak egin zituztenean ondo baino hobeto aukeratu zuten lekua: eguzki begian eta ipar-haize hotzetatik babestuta.

Orain ere ardiak badituzte Lope bietan, nahiz eta aspalditxo laga artaldeekin egiten zuten neguko ibilbideari Angiozar Bailarako beheko zelaietara. Mondraueko plazara tratura joateari ere pasa den gabonetan utzi zion Angelesek. Beste baserri askotan bezala bizi dugun aldaketek dakarrenari egokitzen dihardute Lopetarrek.



## MENDRAKORTA, KORTAZABAL, KORTASAKON, ABELETXE...

1335 urtian, Elgeta sortu zanian, estatus berezixa emon jakuen Elgetan bizi zienei eta bertara bizi izatera etorritakuei: Elgetako larren erabilia, herri lurrak orduan, bertakuendako zan bakarrik; ezin zan sartu Elgetako larretan kanpoko ganaurik. Honek onurionek beste batzuekin batera, inpuestuak ez pagatzia bestiak beste, herrira jente barrixa ekartzia, eta bertakuak kanpora ez juatia ekan helburu. Kontuan izan inguruko herrixak orduango industria -olak batez be- haundixagua ekela.

Hau holan izanda, erreza da Elgetako leku-izenetan, toponimian, abelzaintziakin zer ikusixa dauken izenak topatzia: *Angiozar*, *angio*, larra mugatua; *Larragibel*, larraren atzian; *Lapurdi*, larra ugari; *Abeletxe*, abere etxia; *Ollakorta*, *Kortazabal*... Ikusten danez, izen batzuk etxiekin lotuta dagoz, eta beste batzuk sailekin.

Nik gaur hamen horrek sailon inguruan eskribidu gura

neuke, adibidez *Kortazabalen* inguruan.

Bizkaian, *kortak* -Elgetan bizkaieraz eitten dogu-; Gipuzkoa aldian, *saroeak*, Kantabria, Asturias eta beste zenbait tokittan, *sel* deitzen dotze. Ikusten dozuen moduan *korta* edo *saroen* hau kontuau dezente zabaldua dao.

Elgetan, gutxienez, bi eza-gutzen dittugu, bata esandako Kortazabalgua, bestia Asurtzakua. Kortan distribuziñua, gehixenetan, abelzaintza trashumantearekin euan lotuta, edo bestela ikatzaren aprobeixamenduarekin.

Hamabigarren gizaldikuak ete dien diñue batzuk, eta herrilurren lehen pribatizaziñua diela pentsatzen da. Kortan neurrixa aldakorra izaten da: 164 metroko radixokua -8,5 hektarea inguru-, 117kua... Kontuan euki honen korton formia biribila zala, eta biribil horren erdixan mugarrixa euela. Mugarri honen izena *kortamugarrixa*

da. *Kortamugarrixa* da mugarririk inportantiena; bertatik hartzen da kortiaren neurrixa, eta berorren gainian markauta dao 8 edo 16 arraixakin nun daozen baztarretako mugarrixak.

Honek mugarrixok, kortamugarrixak, normalian, arearrizkuak izaten dia, eta metro bat inguru eukitzen dabe. Harri bakarrez eiñdakuak izan leikez edo bestela bat baiño gehixaukuak. *Baztarmugarrixak* be, metro bat inguru eukitzen dittue.

*Kortazabal* inguruan ikusi leikez ondiok batzuk, *baztarmugarrixak*. Hala ta be, *kortamugarrixa* galduta dauela usten dot. Balitteke pistak eitterakuan lur azpitan gelditu izana edo ondiok parian ez suertatzia, Auskalo! *Asurtzakuen* barri ez daukat.

A. Telleria

**F . O . R**  
*Kalitate kontrola*  
*Piezei azken ukituak*  
Tel: 76 80 38



salbador  
19  
behea

**Iragarri  
zaitez.**  
Tel:78.90.85

**ELKORO TORLOJU LANTEGIA**  
**DEKOLETAIA ETA**  
**ELJAZIO SISTEMAK**



Berraondokua 2/g 20690 Elgeta  
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

**Hozkailuak eta  
izozkailuak  
aire giro-  
tua.**



Salbador 21  
Berraondokua 7  
Tel eta faxes: 78 90 46



M<sup>a</sup>  
**ESTHER**  
Tel: 76 81 67



## Intxorta 1936ko abuztuaren 28an

Konturatuko zineten gerra garaiko erretratua dela oraingo alerako aukeratu duguna. Berau, intxortako tontorrian aterata dago. Eusebi, Bitori eta Rosario bertan zeuden gudariei bisitatzeraz joan ziren egunetako bat aprobetxatu zuten argazkia egiteko. Gerra garaia zen beraz erretratu honek 60 urte pasatxo ditu. Ez da makala! orain argazki makina edozeinek du baina orduan...

Gerrako sakuen artean dago aterata argazkia. Zeletaneko gainian bizi zen gizonak argazkirako ere bere arma hartu zuen gudari zela argi gera dadin. Beste gizonazkorik ere bada: ezkerretara Sabino Gallastegi, Dionisian semea eta eskuinetara manga motzean dagoena Vitorio Torrezar. Rosario Galdosen ondoan beste emakumezko bat ere badago zuriz jantzita, Elenita Etxebarria da. Argazkian Galdos familiartekoak ditugu. Goian Rosario, erdi-erdian Vitori eta sakuetan jarrita Eusebi.



Argazkia: Rosario Galdos



Ibargarai, 11-13  
BERGARA  
Tel - Faxes: 767058



## MODELO BERRIAK

Kalitate hobea preziorik onenean!



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

**OBRAREN PROIEKTUA ERAMATEN DUGU**



*Goibekokale* aldizkariko  
loteria salgai

21.528 zenbakia

Taberna eta  
dendetan daukazu.  
Ez galdu aukera.

